



Josetxo Azkona biobibliografia

Aitor Ortiz de Pinedo

► **To cite this version:**

| Aitor Ortiz de Pinedo. Josetxo Azkona biobibliografia. inPress. artxibo-02865872

HAL Id: artxibo-02865872

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-02865872>

Submitted on 12 Jun 2020

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Jose txo Azkona

Jose txo Azkona Garzia Iruñean jaio zen, 1953ko maiatzaren batean. Poeta, ipuingile, artikulugile eta irrati-esataria. Lanbidez, itzultzaile jardun du Administrazioan. Egun, bere jaioterrian bizi da, jubilatuturik. *Korrok* aldizkaria sortu zuenetako bat izan zen, eta bertan argitaratu zituen bere lehen idazlanak, 1984 eta 1989 bitartean. *Korrok* aldizkarian parte hartu zuten, beste askoren artean, Jon Alonso, Mikel Taberna, Xabier Diaz Esarte, Joakin Balentzia, Patziku Perurena, Aingeru Epaltza, Bixente Serrano Izkok... Aldizkari hau euskal literatur sistemaren periferian kokatua zegoen. Hala ere, 1984an 1000 aleko tirada egiteko gai izan zen. Aldizkari ikonoklasta samarra izan zen, eta baita plaza-leku irekia ere hainbat idazle hasiberri zein eskarmentudunentzat. Kultur eta literatur gaiak plazaratu zituzten: sorkuntza, iritzi-artikuluak, poesia, liburuen iruzkinak... Itzulpenak ere argitaratu zituzten... Marrazkilari eta komikigileen artean, Patxi Huarte *Zaldiero*, X. Alonso, X. Idoate, A. Urmeneta..

Sari batzuk irabazitakoa da Jose txo Azkona bere ibilbidean: Iruñeko Poesia Saria *Argiaren goraldian zabuka*, 1993an; Euskaltzaindiaren Felipe Arrese Beitia Saria *Artius*, 1995ean; IX. Rikardo Arregi kazetaritza-saria, 1997an, *Euskaldunon Egunkariako Nafarkaria* agerkarian (1991-2002 bitartean jardun zuen bertan), “Marta” izeneko artikulugatik (1997ko otsailaren 14an argitaratua)¹. Liburuen alorrean, bost poesia-liburu argitaratu ditu, eta narrazio laburreko lan bat ere bai.

Irrati libreetan parte hartua da: Iruñeko Paraíso eta Eguzki irratietan, 80ko hamarraldian. Bestelako irratietan ere aritu izan da: Iruñeko Herri Irratian, profesional gisa, eta Euskal Herria irratian, ohiko kolaboratzaile izaki. Bestalde, nola irratian, hala publikoaren aurreko emanaldi frankotan, poesiak leku garrantzitsua izan du egile honengan.

Tira, goazen idazle honen liburuekin, banan-banan:

Artius 1996 (poesia). BBK-Euskaltzaindia

Poema solteak dira, guztiak sei ataletan bilduak. Naturaren presentzia oso nabaria da zenbait poemetan, haiku estilokoetan gehienbat, lehen atalean. Bigarrenean, maitasun poemak ere badira, erotikoak barne. Hirugarren atalean, lurraldearen ikuspegi telurikoak ageri dira, leku eta topiko identitarioak lekuko: Larun, Goñi, Okabe... Laugarren atalean, aldiz, planetari buruzko kezka da nagusi: kontsumismo txoroaren etsia, kutsadura, egoera sozio-politiko... Bosgarren atalean, konparazione, denboraren iragana darabil poetak lerroetan, eta kosmosaren

¹Azkona Garzia, José Felix (1997) “Marta” *Nafarkaria* 1997-02-14

https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/nafarkaria/1997-02-14.pdf [2020-05-15]

kontzientzia halaber. Seigarren atalean, poema segida luzea dakar heriotzaren ardatzaren inguruan (aita zena gogoan).

Hizkera ulergarria eta iradokorra darabil Azkonak. Komunikazio poetikoa du helburu bere poesiak, eta irakurlearengana iristea lortu egiten du gehienetan. Lexikoa zaindua da, baina bitxikeriarik gabea: ulerterraza. Eskerrak ematekoa da, beraz, poesiaren eremuan lortzen duen adierazkortasun argia.

Koilara bete hitz 2001 (poesia). Alberdania

Liburuak hari gidari bat du; izan ere, poema guztiak gai bakar bati lotuta baitaude, hau da, jan-edanari. Euskal Herrian sukaldaritza ezinbesteko mito nazionala da. Janariaren ikuspegia hiru mailatan ematen da: janaria bere horretan lehenik, janariak duen indar sinbolikoa bigarren, eta, azkenik, janariak duen balio antropologiko zein kultur esparrukoa. Liburu fina, alaia eta dibertigarria; janaria poetikoki dastatzera gonbidatzen duena. Erotismoak ere badu lekua liburuan: jaki afrodisiakoak ez dira falta Azkonaren sukaldean. Iruinsemea, bestalde, Gabriel Arestiren mireslea dela iduririk, ikuspegi sozial batetik ere ondu ditu zenbait poema, baina bere erara, beti ere.

Kritikari batzuek zelanbaiteko zurruntasuna ikusi dute poema hauetan; liburuak, esan dudanez, janariaren gai bakarraren inguruan dabilelako orrialderik orrialde. Ahalegina, oro har, arrakastatsua da.

Patata soro bat 2004 (narrazioa). Alberdania

Narrazio laburren bilduma bat da liburu hau. 61 narrazio daude: bizpahiru orrialdekoak, eta hamar lerro gehienez dutenak: istorio umoretsuak eta ez hain molde horretakoak; ipuin hunkigarriak eta samurrak; narrazio ironiko eta parodikoak; alegoriatik hurbilekoak. Errealitatearen alderdi desberdinak erakusten dizkigute.

Ipuinok erakutsia edo moraleja bat izango lukete, baina nabarmendu gabea; hura zehaztea, hain zuzen, irakurleen esku geratzen baita. Testuak ez dira krudelak, baina bada horrelako zerbait, ironia apur batez leundua edo goxatua. Liburuaren amaiera optimismoz betetako agurra da, nahiz eta, esan bezala, lar garratzak diren narrazioak batzuetan. Lehen aditu batean, bestalde, esan daiteke liburuak euskal ipuingileei egindako omenaldia dela: Arratibel, Linazasoro...

Arbola naiz, eta zuhaitza 2009 (poesia), Alberdania

Azkonaren laugarren lan honetan eduki eta molde ezberdineko 82 poema bildu ditu. Badira hiru lerrokoak edo 30ekoak, eta badira poema lirikoak edo harri narratibo bati jarraitzen

diotenak ere. Arbola eta zuhaitzaren arteko desberdintasunean oinarrituta, zibilizazioak eta naturak duten garrantzia azpimarratzen du poetak hasierako poemetan. Hurrengo beste bi ataletan maitasunaz dihardu, eta haren ifrentzuaz: gorrotoa. Laugarren atalean bizitzaz ari zaizu. Eta bosgarrenean, heriotzaz. Azken atala, ostera, utopiaren inguruan ehundua dago. Liburuak, orokorki, ibilbide bat eskaintzen dio irakurleari giza kondizioaz. Poema batzuk alegoria forman daude itxuratuak. Hala, Jainkoaren ideiaz, erlijioaz, askatasunaz, telebistaz, itsuen mintzairaz, gerraz, petrolioaz... dabilkigu iruindarra lan honetan. Olerki zuzenak eta ulerterrazak dira, idazlearen pentsaera eta sentiera aditzera ematen dutenak.

Ez naiz Fujin izan 2011 (poesia). Pamiela

Haiku liburua da, oso-osorik. Denera 321. Aurreko liburuetan ere agertzen ziren haikuak, baina hau da lehena haietaz erabat osatua. Haikua ekialdeko forma bat da, erriman baino moran oinarritzen dena. Hiru lerroz osatutako poema minimoa da: bost silaba, zazpi silaba eta bost silaba. Haikua bakuna da, baina ez sinplea. Hala, egilea aski aske dabil bere modura haikuak sortzen, arauetan erabat kateatu gabe; izan ere, hark, hitzaurrean, haikugintzaren gorabeherak azaltzeaz gain, azaltzen du, era berean, zergatik jokutzen duen horrela.

Galdeak eta baleak 2014 (poesia). Pamiela

Poesiak galderak egiteko duen ahalmena azpimarratzen da liburuaren izenburuan. Poesiaren eta hitzaren izaeraz dihardu lehen bi ataletan. Hirugarren atalean, aldiz, maitasunaz eta harekin sarri lotuta dagoen krudelkeria aipatzen du. Lanari amaiera emanez, eta Xabier Leteri gorazarrea eginez, hura goraiatu nahirik, arazo existentzialak, poesia bera, edertasuna eta natura, besteak beste, aipatzen ditu liburuaren hondarrean. Bi motako galderak ageri dira liburuan: poemaren testuinguruan sortutakoak, zeinek baduten zer ikusia poemaren gaiarekin, zuzen edo zeharka eta propio egindakoak, guztiz autonomoak haien artean, nahiko absurdoak (edo ez) jo ditzakegunak: galde txoro samarrak, zirtolariak, bihurriak, buru-korapilo itxura hartzen dutenak.

ARTIUS (1996)

ZINTZARROTSAK

Euri ttipia.
Mila zatitan hautsi zen
kazkabarra.

Saguak tamaina
hartu dio sugeari.
Hobe saguzarra balitz!

Urak eta ihiak
zer harreman duten
halako hegaztiak aintziran.

Kukua aditua,
lumen baitara bildu zen
txantxangorria.

Borda barneraino
heldu da elur xehea.
Teilatu zulotik, kerik ez.

Goiko adarretan
milizka dihardu eguzkiak,
lantxurdaz gozatzen.

Ura izotz
esnatu zen. Bakarrik
lo egin zuelako.

Auza kaskoa
langarraren menpe:
are Baztanago!

Mugarrien antzera
dautza zaldi-behorrak.
Agorrileko sargoria.

Zisne luma batek talka
egin du elurraren kontra.
Oihartzun zuria.

ARGITZEKE

Materia harri
eta arima txori
izendatu duen
mintzairarik badator
harro greko
eta latinaren aitzinetik.

(Harrizko habian
txepetxak kantari.
Azeria zelatan
inguruan).

HIRUGARREN MILENIOAREN ATARIAN.
(1993)

Europa izena duen hiri honetan
zornaz ageri dira teilatu hautsiak
eta marru bortitzak aditzen dira karriketan.
Eta orduko hartan musukatu eta besarkatzeko
elkarren arropak eransten zituztenak: Sakib, Minka,
Adis, Zlaton, Bogdan, Hihad, Jasna, Senad...
Atzaparka biluzten dira orain lepamozteko
beren odol nahastuen haurrak zatikatzeko
kaleaz bestaldeko emakumeak oro bortxatzeko
ogidendetako bezero gosetiak odolez blaitzeko...

Zeren odol puruaren bila baitabil basapiztia Sarajevon.

HONDARTZA EGUNAK GOGORATUZ

Irudika ezazu ekia uda garaian
eta itsasoa dirdira eginez hodeiertzean.

Senti ezazu ekiak goiti egin duela
eta gazteak apar festaz ari direla jolasean:
pulunpa bizian, ilea blaiturik, gorputzak biluzik.

Ordua heldu da jada hondarrean etzateko.
Eskuak ari dira orain solasean.

Irudika ezazu ongi agerraldia,
eta nirekin batera begira ezazu zuk ere
ekiaren brontzea apar artean urretaturik.

Eguerdiaren isila.

Itsasoa bezain handia.

Argia.

Hilik datza denbora

eta geldirik ekia.

KOILARA BETE HITZ (Alberdania, 2001)

OLIOZ

Oliozi nahi zaitut patata, tipula

eta azenarioarekin batera;

haragi gisatuaren saltsan.

Olioiz nahi dut zure boza,
olio-ozpinez ongi doitua;
tomate eta letxugaren arteko
solas xamurra.

Olioiz nahi zaitut eguerdian;
okelak eta piperrek
elkar jotzen duten izerdi punttuan.

Olioiz nahi zaitut gauean,
arrautzaz blai eginda;
zartaginetik platerera
doan jauzi horixkan.

Olioiz nahi zaitut nire ondoan;
oliba olioiz, ahal dela; baina bost
axola ekilorez edo artoz bazentoz ere.
Ongi etorri nire sukaldera!

STACY BURD-EN AZKEN HANBURGESA

Jaun-andreok,
The Walls presondegi zaharreko ziegatik
mintzo zaigu Stacy Burd, ea gosez dagoen ea zer apeta duen
galderei erantzunez.

Elkar uler dezagun behingoz:

hiru orduren buruan hilko dute,
eta, ondorioz, ez da komenigarria
urdaila hutsik eramatea.

Hanburgesa bikoitza nahi duela dio;
nolabait, Oldenburg Claesek bere eskuekin
igeltsuz moldatuko zuenaren gisakoa:

txahal xehatuaren okelaz tinko maneatua,
baratxuriz, perrexilez eta arrautzaz ozen goretsia,
tomate saltsaz, ziapez eta letxugaz jori mestizatua,
eta, batik bat, tipula anitzez ezin hobeki lagundua.

Batez ere, Texaseko Gobernadore Txit Papartak
erran ahal diezaien bere bozemaile malapartatuei:
«Hori bai zorioneko gizona, hagitx *typical american* petoa,
bai baitaki uholdearen aurrean zapatako zuloak
erretxinaz estaltzen, barrengo sutea behazunez amatatzen.

Ez dela soilik arduragabeko kreatura hiltzailea,
ez dela soilik izotz puska baten seme harroputza!».

Zeren, Fusilak era Bibliak bat egiten duten
Amerikaren bihotzean ari baitzaigu Stacy Burd,
eta, listua dariola, zera erraten dio *clergymandun*
apaizari, hanburgesa mauka-mauka jaten duen bitartean:

«Ni naiz hamaika geruza dituen tipula lodi bat,
amets belztu batek alanbre ziztakariek
inguratu alorrean erein zutena eta hazi dena,

hezi eta erauziko dutena. Gizon koitadua.

Eta jateari atxikitzen natzaiola begi laino mehe artean,
tipulak gorde duen azken geruzaren sekretua
zein den jakin nahian lehiatuko naiz».

Goiznabarreko 7.25ean atera dute ziegatik.

Goiznabarreko 7.27an ohatilari lotuta dago.

Goiznabarreko 7.28an, injekzio bar eskuineko besoan.

Goiznabarreko 7.29an, beste injekzio bar ezkerreko besoan.

Goiznabarreko 7.35ean erraten ditu azken hitzak:

«Azken geruzaren ondoren, beste sarraila bar.

Hanburgesa aparta, halere. Modorrok halakook!!!»’.

Goiznabarreko 7.36an, heriozko dosi erabakigarria.

Goiznabarreko 7.38an, potasio klorhidrikoa tarteko, isildu da bihotza.

Goiznabarreko 7.43an gelditu da hanburgesa

Stacy Burden hesteetan.

ARBOLA NAIZ, ETA ZUHAITZA (Alberdania, 2009)

HAN GOITIK

Inoiz igo al zara zuhaitz batera?

Harrapatu al duzu inoiz txorien aierua habian?

Eraiki, bai, beste mundurik adar arteko zurrumurruan?

Iragana eta oraina nahaspilatzen dira han goitik begiratuta:

Basajaunak ez zuen bizarrik,
Elektroiak halabeharraren arabera higitzen dira
libreki atomoaren barrenean,
Evaren sagar freskoa gozatu zuen sugaren zintzurak.

Zuhaitzetatik beheratu ziren orain dela sei-zazpi milioi urte:

Beldurrak airean,
Potocadeherin XY gene berria ekoiztuz burmuinean,
Aurreko hankak lur gainetik jasoz eta lurretik urrunduz,
arian ezarian...

Zenbat aldiz ez ote ditut ene begiak zuhaitzetara nostalgiaz itzuli?

Damuz hartu al duzu inoiz adar haietatik jaitsi izana?

Lurrarekin bat egitearen bibrazio hura sentitzen al dugu oraino?

LAINO ARTEAN EZKUTATUTA

Izotza bezain irristakorra.

Hitz gutxitan adierazten zaila.

Aldartea bezain aldakorra.

Urliarentzat ederra dena

itsusia dateke Berendiarentzat.

Eta, halaz ere, hortxe diraute,

bizi-bizi, galdera hauek:

Baina, zer da edertasuna?

Zerk egiten dio norbaiti-zerbaiti eder izatea?

Artistari baizik ez dagokio haren peskizan ibiltzea,
edo eta kezka hori behar al da izan gizaki ororena?

Ausartuko naiz erantzuten, nolabait:

“Laino artean ageri da pagoa.

Neu naiz ni lainoa, neu naiz ni pagoa.

Baina laino arteko pagoak ez du begiratzen,
ez pagoak ez lainoak.

Neuk bestek ez die begiratzen”.

(Ederrez paregabea da laino arteko pagoa).

NEGUKO IRTEERA

Ez zegoen hosto batere

pago elurtuan,

Adar batean bele bat soilik,

Hegoak astindu

eta dardarizo ilun batek

mendean hartu zuen zuhaitza.

Basoan nola pentsamenduan

kolore higadurak daude,

sentsazio antolamenduak,

hosto-oroimena harat-honat

zehatzen duen haize zakar leuna.

EPIFONEMA

Arbolak gara, eta zuhaitzak.

Jo dezagun hirira! Gera gaitezen basoan!

Espaloietako ezkiak izanen gara,

eta erreka inguruko haltzak.

Noizbait, enbor bihurturik,

korrituko ditugu biharko itsasoak, ez hona ez hara,

haize zakar batek bulkatuak bezala.

Arbolak gara, txorien antzera alde batetik bestera goazenak.

Eta zuhaitzak, baso-oihanari tinko eusten diotenak bezala.

Arbola naiz, eta zuhaitza.

EZ NAIZ FUJIN IZAN (Pamiela, 2011, haiku liburua)

Laino itsua.

Behia hanka zabal:

Beste ibaiertzean

plast; aldian-aldian;

galdu zen zubia.

plast-plast.

Itsas kresala

Ilargi printzak

karririk karrika.

maindire mintzean:

Sardinak txingarretan.

elurra?, aparra?

Ezin dut ikusi,

Atorra azpitik

baina aldean daramat

labainduz doa ekia.

biharko ene hautsa.

Urez blai bularrak.

Txosna gunean

Orraziari so.

argitu du eguna.

Baita burura ere

Zorion kirasduna.

heldu da udazkena.

Sagu hezurdura.

Zeruko soinua:

Ez da oso ezberdina

tinbal-tunda burrunba,

gurearekikoa.

argi palastak.

Goitik ibili arren,

Ura irrist doa

behetik dator beti

hormatik behera.

kranpoien hotsa.

Belartxoak oinean.

Ipurtargiak

Ilargi beteak

itzali du argia.

harrotu du haizea.

Aldika nik ere bai.

Olatu sorta sortu.

Bizarra moztua

Azken agurra:

bestelakoa da

ez soilik euri tantak

ura musuan.

adio zapian.

Bi ezkontide:

Dorre elektrikoa.

tipula, berakatza.

Kortxea-kortxerdiak

Olio lekuko.

dirudite txoriek.

Hiri paisaia.

Horra bi zidor.

Nahi eta nahi ez,

Bihurrena da latzena.

arbola eta ibaia.

Ederrena, baina.

Urmaelean

Orein orroak

hostaila flotatzen.

Plastikoak ere bai.

Lur jorratuan

hezurdura pilatuak.

Negar dagi amonak.

Putz egin dute.

Haurrak bota duenez,

arbuiorik ez.

Zahatoari

izpiak darizkio.

Argia zintzurtean.

Ongi adosten da

huntza hormarekin.

Mina bihotzarekin.

Erroetatik

buruko zozoraino

oro da zuhaitza.

Belaontzia

sits hegal bihurtu zen

ekaitz besoetan.

Takonera inguruan.

Nireak balira!

Ibai lasterrean

adatsa du garbitzen

ertzeko sahatsak.

Basoan barna

zeren bila nabilen

badaki zozoak.

Autobusa.

Kristalari itsatsia

norbaiten hatsa.

Eguzki suteagian

Helio da errege,

Hidrogeno erregai.

Lapiko barruan

txipiroiak borborka.

Belztasun bizia.

Kutxa batean

zendutakoen gauzak.

Usain maskaldua.

Ez ilargirik,
ez lapurrik, ez leihorik:
ez da haikurik.

Aldia ur-pasa da.
Arrantzaleen aldia
amuarrain pasa.

Itzal pusketak
gauean saltoka.
Apo horiek.

Zer gosaltzen du
larreak goizero?
Gaueko basura.

Popaz haraindi
noiz zerua, noiz ura.
Tran-tranbalaka.

Bortu gaina.
Beti du gibelean
bertze hainbertze.

Inor ez mahaira.
Kafe kikara bi,
zigarro kea soilik.

Nola azari,
hala gizakiari:
lurrin-kiratsa.

Hosto bakar bat
urkitik zintzilik,
eror hil zorian.

Kaioak arrainka
urrezko olatuetan.
Gari itsasoa.

Hau gazta hau!
Artzain zorro kutsua,
saroi usaina.

Mediko kontsulta.
Begi itxiak ez daude lo,
zabalak ez daude behe.

Ez da erraza

Haize kontra.

beldurrik gabe bizi,

beldur gabe hil.

Gaztainondoaz

zerbait esan asmo nuen.

Hari so isilik geratu.

Mendiko botak.

Zuenak bezain nireak

ibili bideak.

Maitez itsuturik

ziza eta basoa.

Izatezko bikotea.

Kaikua ez da

haiku gordailua.

Kaikua halakoa!

Ezustean motots

bihurtu zuen adatsa.

Ene begiak kokotean.

Elkar ukitzean

zer erranen diote

elkarri inurriek!

Une jakin batean

pikondo usaina.

Karramarroa.

Nik ere noizbehinka

atzeraka joko nuke.

Igogailuan

behera doaz begiak.

Isilune higigarria.

Hostoz soilduta

zuhaitzetako habiak

neguan begi-bistan.

Haize bolada.

Olatuen hots-kresala

belarri-sudurrean.

Antxetak lagun,

arratseko haizeak

igurtzi zuen kaia.

Barruko mugak.

Haixek eraikiak dira

kanpoko harresiak.

GALDEAK ETA BALEAK (Pamiela, 2014)

AZALA JOZ

Hitza azal halako bat da,
urruneko oihartzun baten errainua.
Azala bertzerik ez da hitza, mintzaira.
Hainbesteraio, hor nonbait elkartzuz
eta azala doi-doi ukituz hortxe baitugu hartu-eman.
Bai, zurekin aritu nintzen halako batean,
eta azala elkarri igurtziz jakin genuen
zer eta nor ginen, azaldunok gara eta.
Eta halaxe jokutzen dugu guztiok,
azal gaiztokoak ez bagara, behintzat.
Aizu, egin dezagun azal aspertu bat,
hain bakarrik ez egoteko, zorion unetxo bat
elkarrekin erdibanatzeko!

Badakizu, ezta? Adiskide onari, azal guti.
Halaz ere, argi ibili behar, azal lodikoak
eta bi azaleko kopeta dutenak franko baitira.
Hona hemen nehoiz izanen ez den
kale agerraldi baterako lelo aproposa:

“Azal dezagun sentitzen duguna,
sentitzeko azaltzen duguna”.

Mintzoa azala denez, azaleraz mintza gaitezen.

Azala jo dezagun, mesedez!

ERRO ERROTIK

Haur munduratu berria,
halabeharrezko zimendu gainean
eraikia den bola txatxu honetan sortua.
(Edo hau guztia ez al da txatxu samar?).

Haurra atseginez ari da
amaren bular kurruskatsua hartzen.

Jakin, ez daki ezertxo ere ezertaz ere.
Baina ezertaz ez dakien arren
(jakitea bera zer den, jakin ahal izanen du noizbait?),
bularretara jotzen du kementsu,
muga lausorik gabeko eboluziotik datorkion
eta genetari txertatua duen senari baitezpada jarraituz.

Haurra, amaren jario esnedunaz aserik,
lo dago airezko sehaskan, igerian, Arkadian beharbada,
han non, ezari-ezarian amestuko baitu amaren ugatz
gurietatik edoskitzen ari dela, oihanpeko goroldiak lur hezetik nola.

Ausaz, haurraren nolako esnezko ametsak,
halako biharko helduaren bizitzeko...
eta hiltzeko manerak.

IQBAL MASIQ

Litekeena da jaten ditugun platanoak,
edaten dugun kafea,

esertzen garen aulkiak,
janzten ditugun kirol zapatilak,
seme-alabek darabilten baloia
esku ttipi samurrez,
esnezko izerdiz,
odol gozoz eta minsor isilez
egin izana, landu izana,
obratu izana.

Munduan, egun, 215 miloi neska-mutikok
lan gogorretan dihardute,
haietarik 115 miloi esklabo.
Litekeena da nik zapaltzen dudan
alfonbraren puskaren bat haietarik batek
egin, landu, obratu izana.

Salako alfonbra
zapaltzen dudan aldiro
zer gehiago ez ote dut zapaltzen?!

(Esku ttipi samurrak,
gerorik gabeko egoitza ilunetakoak).

HERIOK ERE ARDOA DU ATSEGIN

Bizia aldi baterako dela aintzat hartuz,
hura lertxuna hegan bezala agudo
pasatzen dela jakinik, haren eta bizidunon artean

kristal mehe bat bertzerik ez dagoela iruditurik,
heriotza izatea beti gogoan erabaki nuen, halako batean.
Harrezkero, bizitzaz bezainbeste heriotzaz gogoetatzeak
nabarmenago bihurtu dizkit itsas hondoko fumarolak
eta isilpeko baso azpiko apailamendu ezko eta leuna.
Harrezkero, distiratsuagoak zaizkit gaueko karrika eta etorbide hutsak
eta haien gainean hegan dabiltzan saguzarren itzal ibiltariak.
Azkenekoz, eramateak heriotza gogoan beti
edariak oro aiseago dizkit edanarazi; bereziki, urtez urteko ardo bete-betea.
Zeren eta, mamian, ardoaren gisakoa baita heriotza,
eta ardoak obratu bezala (batzuk suspertu eta bestetzuk
birrindu egiten ditu), heriotzak, bere ahal miragarriaz,
birsortu egiten du bizigabea, baldin eta hari buruzko hausnarra
etenik gabea bada, bai egunez eta bai gauaz.

Gaueko herio zen, eta horditurik zetorren zeharo.
Hark gidatzen zituen bagoi mordoak errailetatik atera
eta karrankaz amildu ziren goizeko lore jaioberrien kontra.

SINPLEKI ERRANDA

Hemen dago bizitza, ni nagoen tokian.
Hau da nire bizitzaldia, eta ez dut bertzerik.
Berak itzulingurua egiten nau alderen alde
eta bera dabilkit noiznahi eta nonahi:
azkar zein motel, alai zein goibel.
Dena den, txunditurik nauka biziak zernahi gisaz.

Etsipenak ere hartzen nau tarteka, nola ez.

“Bizi hadi eta bizitzen utzi”, diozu, bizipoz antzeko bat bekokian.

“Eta hiltzen ere utzi”, diot nik, irribarre maltzur bat ezkutatu ezinik.

Agidanez, nork nahi lukeen bezala

ez izatea bide da, hain xuxen,

bizitzaren ezinbesteko lege mokorra.

“Eta, zer izan nahi zenuen zuk, bada?”.

Eta ez dakit zer arraio erantzun.

Agian, inoiz garbi izan ez dudalako

zein ote zitekeen nire egitekoa

antzezlan irrigarri eta penagarri honetan.

Ez dakit hau baizik: ur lasterra bezala doa

nahinora eta edonoren gogora.

Eta lantua eta poza da: pailazoaren irriño gazi-gozoa.

Eta arrazoimena eta eldarnioa hainbana dakartza.

Agerian gera dadin eta ondorioak izan ditzan:

komedia eta drama, nahiz ona nahiz txarra.

Bibliografia

Azkona Garzia, Jose Felix, *Josetxo* (1996) *Artius* Bilbao: Euskaltzaindia. Colección Felipe Arrese Beitia Saria <https://armiarma.eus/gordailua/AzkonaJArtius2.htm> [2020-05-15]

Azkona Garzia, Josetxo (1997) “Marta” *Nafarkaria* 1997-02-14 https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/nafarkaria/1997-02-14.pdf [2020-05-15]

Azkona Garzia, J. (2001) *Koilara bete hitz* Irun: Alberdania.

Azkona Garzia, J. (2004) *Patata soro bat* Irun: Alberdania.

Azkona Garzia, J. (2009) *Arbola naiz, eta zuhaitza* Irun: Alberdania.

Azkona Garzia, J. (2010) *Ez naiz Fujin izan* Iruñea: Pamiela.

Azkona Garzia, J.(2014) *Galdeak eta baleak* Iruñea: Pamiela.

Elkoroberezibar Larrañaga, M. A. (2019), «Korrok», in *Auñamendi entziklopedia*
<http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/artikulu/154152/> [2020-05-15]